

Kontxarako sailkatzeko 23 trainera ariko dira gaur Donostian

Parekotasun handia dago, eta ezustekoak espero dira ¥ 28

gizartea

■ Geneen patentea



Carlos Maria Romeo: «Isolatutako geneak asmakizun bihurtu dituzte» ¥ 11

■ Berrehun lagun inguru aritu dira Laura Orue gaztearen bila Zeberion ¥ 12

europa

■ Errusia

Moskuri diru gehiago ez emateko eskatuko diote EEBBek FMlri ¥ 19

■ Ipar Irlanda

Elkarriketarako deia berretsi die alde guztiei Mo Mowlamek ¥ 22

kirola

■ Pilota

Mikel Goñik galdu egin du berragerpen egunean ¥ 32

kultura

■ Musika Hamabostaldia

Maazel: «Munduko artista berriak zuzendu nahi ditut Bavaria utzi eta gero» ¥ 33

Ekialdeko Timor ◆

Paramilitarrek hiriburua hartu ostean, jendeak ihesari ekin dio

Indonesiako segurtasun indarrek ez dute ezer egin Aitarak miliziak geldiarazteko

■ EKIALDEKO TIMORKO Dili hiriburua Indonesiaren aldeko paramilitarren esku dago atzodanik. Aitarak milizietako kideek Diliko kaleak hartu dituzte, eta Indonesiako segurtasun indarrek ez dute ezer egin hori eragozteko. Aitzitik, haien aurrean izugarrikeria handiak egin zituzten atzo milizietako kideek: aurrean harapatutako guztiak kolpatu zituzten armekin eta aiztoekin. Iragan astelehenean independentziari buruz egin zen erreferendumeako emaitzek independentistei garaipena emango dioten beldur dira paramilitarrak, eta horregatik hartu dituzte kaleak. Ondorioz, herritarrek ihesari ekin diote. Atzo, Diliko portua jendez gainezka zegoen. Nazio Batuek gertatutako bortizkeria ekintzak gaitzetsi dituzte, eta atzo Segurtasun Kontseilua bildu zen krisia aztertzeke. Xanana Gusmao lider independentistak alde bien arteko elkarriketarako deia egin zuen atzo. ¥ 23



Timortar batzuk Diliko kaleetan, atzean ageri den suteari begira.

CHARLES DHARAPAK / AP

Korsikar abertzaleak baketze bidean

■ Azken hilabeteetan akordio batzuetara iritsi dira mugimendu desberdinak ¥ 20-21

Euskal Herriko Hautetsien Biltzarra ◆

EAJk «zalantzarik gabeko babes» eman dio Hautetsien Biltzarrari

■ Egibar: «EAJn disidentziak bilatzeko dagoen interesa joko hutsala da»

¥ 6

EAEko eskumen fiskalak ◆

EBk Ituna betetzearen baldintza jarri dio euskal fiskalitateari

■ Eskumen fiskala ez duela zalantzan jartzen esan du Monti komisario berriak

¥ 16

